

IZAN GINELAKO

Herria ezagutzen



1. UNITATEAREN GIDA PEDAGOGIKOA



IZAN GINELAKO

Herria ezagutzen

LEHEN HEZKUNTZAKO

1.MAILAKO

IRAKASLEENTZAKO

GIDA PEDAGOGIKOA



1. UNITATEA: IZAN GINELAKO

1. AZALAREN BEHAKETA, HURBILPENA ETA ELKARRIZKETA

Gaiarekiko hurbilpen bat egiteko, lehendabizi unitatearen tapa edo azala behatuko dugu. Azalaren behaketan aurreikuspen estrategiak landuko ditugu.

- Zer ikusten dugu?
- Zerk erakartzen zaituzte?
- Zer irakurri dezakegu?
- Azala ikusiaz, zer nolako gaia jorratuko dugula uste duzue?
- Atsegin al duzue gaia? Zergatik?
- Zer ikasi nahi duzue gai honi dagokionez?
- ...

2. AURKEZPENA (5. orria)

Ikasleei banaka irakurtzeko tarte bat eskainiko diegu. Ondoren, talde handian egingo dugu irakurketa. Talde handiko irakurketa hasi aurretik ikasleak girotuko ditugu, elkarrizketa sustatu eta hipotesiak egiteko:

- Ezagutzen al duzue? Nor izan daiteke neskatala hau? Ezaguna zaizue?
- Zer dakizue Lezetxikiri buruz?
- Ze ezaugarrik deitzen dizue atentzioa?
- Ze ezberdintasun antzematen dituzue gaurko pertsonekin alderatuta? Zergatik?
- ...

1.- JARDUERA: *Irakurri ezazue aurkezpena eta erantzun egiten dizuen azken galderari.*

2.- JARDUERA: *Osatu hurrengo bertsoa. Hitz bakoitza bere lekuan kokatu eta behin bukatzean, bateratu beste kideekin. Bertsoaren oinen erriman erreparatu eta hitz guztiek ze bukaera berdina duten antzeman, ze hitz gehiago bururatzen zaizkizue bukaera horrekin: *sorrera, bukaera, hasiera, sarrera, saiakera...**

"Maritxu nora zoaz" doinuarekin abestu talde txiki edo talde handian denok elkarrekin.

3. ARRASATE EZAGUTZEN (6 eta 7. orriak)

Ikasleek etxean galde dezakete edo iker dezakete liburuetan edo interneten herriari buruzko informazioa. Batez ere, gurasoei, aiton-amonei... galdetzeko esango diegu. Ondoren bildutako informazioa guztion artean konpartitzea ere ondo legoke, ikuspegi eta



bizipen ezberdinen berri guztiok izateko. Jasotako esparru ezberdinetako informazioa bilduko dugu eta posible balitz gelako txoko batean panel bat kokatuko dugu eta ikasle bakoitzak ekarritako ekarpenak itsatsiko ditugu bertan. Informazioa multzokatu dezakegu nahi izanez gero, guztiok adostutako irizpideen arabera.

- Biribildu ezagutzen dituzunak.

Herriko hainbat txokoetako hainbat argazki dituzue orrian (Udala auzoa, Monterron Jauregia, Besaide, Biteri Plaza, Udaletxea eta Herriko Plaza, lehengo tren geltoki zaharra edo gaur eguneko Inem, etxe txikiak, Uarkape pilotalekua, Kulturate, Garagartza auzoa eta Santa Barbara parkea) biribildu itzazu ezagutzen dituzunak.

Ezagutzen dituzunen artean baduzu zer aipatu: zure etxetik gertu dago, asteburutan egoten zara bertan, behin familiarekin egon zinen, antzerako lekuren bat ezagutzen duzu, anekdotaren bat ... Konpartitu zure gelakideekin.

- Zer dakizu zure herriari buruz?

Herriari buruz dakizuna idazteko aukera daukazu. Inguruan dituzun argazkiek ere, pista batzuk emango dizute herriaren hainbat informazio pilatzeko.

Bakoitzak berea idatziko dugu bere ikuspuntutik noski eta gero, taldearen aurrean irakurtzeko aukera emango diegu eta ateratzen diren ideiekin elkarrizketa bultzatuko dugu guztion ikuspuntu eta ekarpenak borobilduz eta jasoz.

- Zer ikasi nahiko zenuke?

Talde txikietan antolatu ditzakegu ikasleak eta haien artean hitz egin dezakete, bakoitzak taldeari adieraziz zer jakin nahiko lukeen. Ondoren, bateratze lana egin dezakegu.

Azkenik, aukera dezakegu bakoitzak idaztea zer ikasi nahiko lukeen edo denen artean erabakitzea zer den talde gisa ikasi nahi dutena.

- Zuzenak berdez eta okerrak laranjaz margotu.

Arretaz irakurriko ditugu eta bakarka edo taldean egin dezakegu. Hau da, lehendabizi norberak erantzun eta ondoren guztion artean norberak erantzundakoa konpartitu eta zuzendu, argudioak arrazoituz edota talde txikian edo handian denok elkarrekin egin ditzakegu.

Ondo legoke erantzunak arrazoitzea eta okerrak edo zuzenak diren hausnartzeko beste herrien adibideak jartzea, horrela guztion ezagutza sakontzea eta zabaltzea lortuko dugu.. Adibidez:Arrasatek hondartzarik ez du Zarautzek bai.

- Zer hitz edo ezaugarriekin lotuko zenuke zure herria?

Nola definituko zenuke zure herria? lagungarri diren pistak ematea ere ondo legoke. Tamaina (handia, luzea, jendetsua, txikia...) zer du herriak gehienbat? Jolas parke askoduna, trafiko askoduna, lasaia, zaratatsua, jai askoduna...

Nolabaiteko deskribapen txikiak landu dezakegu. Ondoren, gelakide guztien artean konpartitu norberak idatzitakoak.



- Herriko toki edo txoko gogoko bat margotu edo haren argazki bat itsatsi, eta behealdean lekuaren izena idatzi.

Hasieran talde handian norberak ezagutzen dituen txokoen aipamenak egiteko aukera emango diegu zeren bakoitzak bere pertzepzioa izango baitu eta agian zergatik diren beraiantzat leku kuttunak, denbora izanez gero ere atsegin ez duten lekuak eta zergatiak emateko aukera emango diegu. Aberasgarria izango da bereziki norberak esaten dituen tokiak kokatzeko...eta ea gehienak non kokatzen diren: erdialdean, ikastetxea kokatzen den lekuaren gertutasunean,, eta abar.

Nahi izanez gero, marrazteko aukera emango diegu edota Interneten edo etxetik argazki bat edo... ekartzeko eta itsasteko aukera emango zaie. Behealdean lekuaren izena jarri beharko dute. Azkenik, ikasle bakoitzari berak aukeratu eta egindakoa azaltzeko eskatuko diegu gelakideen aurrean, bertan agertzen diren elementuen berri emanez, eta abar.

4. LURRAREN SORRERA (8. orria)

Lehenik eta behin, orrian azaltzen den testuaren irakurketa egingo dugu. Tarte bat utziko diegu irakurritakoaz hausnartzeko eta norberak gertaera edo lurraren sorrera nola imajinatzen duen guztiekin hitz egin eta konpartitzeko aukera emango diegu.

Hasiera batean, Euskal Herria urpean edo itsaspean zegoen, hasieran dena itsasoa zen. Poliki poliki lur mugimenduen ondorioz, itsas azalera lurra agertzen hasi zen. Nahi izanez gero, ikasleekin lur mugimenduei buruz eta horien eraginez lurra tolestu eta azalera zirela hitz egin dezakegu. Hasieran uharte izango zirenak, gaur egun gure inguruko mendi tontorrak izango dira.

Zein uste duzue dela Arrasateko lur zaharrena? Arrasate orduan aspaldi itsasoa izango zen? (...)

Lurraren sorrera aztertu ondoren, bizitzaren sorrerari buruz eta garai hartan izan ziren bizidunei buruz aritu gaitzake. Bizitza itsasoan sortu zen. Lehen bizidun haien berri nola jakin dezakegu? Aurkitu diren fosilen bidez? Zer dira fosilak? Zeintzuk izango ziren lehen bizidunak? Elkarrizketa sor dezakegu taldean ezagutzen duten bizidun zaharrenen gainean. Baliteke dinosaurusak aipatzea ezagutzen duten bizidun zaharrenetako gisa. Dinosauroen gaia oso erakargarria gertatzen da haurrentzat; beraz, gai honetan sakon dezakegu nahi adina.

Kontuan izan egungo Euskal Herriaren eremuan ez zela dinosaurorik bizi izan. Dinosauroak ur bazterrean bizi ziren, eta garai hartan, aipatu dugun bezala, Euskal Herria ur azpian zegoen. Gaur egungo Errioxa izango lirateke ur bazterra eta horregatik daude han dinosauroen aztarnategi handiak.



5. LEHEN BIZTANLEAK (9. orria)

Behin lurraren sorreraren inguruko informazioa sakondu ondoren, lehen gizakiei buruz arituko gara. Horretarako, Arrasaten orain dela urte asko gizakiak bizi zirela baieztatuko dugu testua irakurritz.

1.- JARDUERA: *Orain dela milaka urte... gizakiak bizi ziren Arrasaten.*

Jarraian orrialde horretan ditugun marrazkiei erreparatuko diegu. Azkenik bakarka jarraian agertzen den jarduera idatz dezatela eskatuko diegu.

2.- JARDUERA: *Zer jakin nahi izango zenuke?*

Azkenik talde handian norberak idatzitakoa irakurri eta besteek idatzitakoa entzuteko aukera emango diegu.

6. ORDUKO BIZIMODUA (10.-11. orriak)

Marrazkia behatuko dugu eta antzematen diren ezaugarriak aipatuko ditugu talde handian, honela orduko bizimodu eta bizitokia imajinatzeko aukera gehiago emango baitigu, bereziki hainbat gauza deskribatuz gero. Hainbat galdera ere proposatu ditzakegu beraiek pentsatu, arrazoitu eta hausnartu dezaten:

- Zergatik aukeratu zituzten kobazuloak?
- Zertaz babesten ziren?
- Zertarako balio zuten?
- (...)

Bertako marrazkia aitzakia hartuta ikasleekin hitz egin dezakegu Arrasateko kobazuloei buruz: ezagutzen ote dituzten, noizbait egon ote diren horietako batean, Arrasatetik kanpo ezagutzen al dituzten beste kobazulo batzuk..

1.- JARDUERA: *Duela milaka urte, kobazuloetan bizi ziren...*

Bertan agertzen den testua irakurriko dugu, horrek informazio osagarria emango baitigu.

2.- JARDUERA: *Kalkulatu eta kokatu letra bakoitza dagokion lekuan.*

Domino pieza bakoitzean azaltzen den eragiketa egin beharko dugu lehendabizi, eta ondoren emaitzaren arabera behealdean hizkiak ordenatu. Hizki guztiak idaztean hitz edo izen bat osatuko dugu: **LEZETXIKI** hain zuzen ere. *Lezetxiki Arrasateko kobazulo garrantzitsu bat da eta horretaz hitz egiteko aukera erabili dezakegu:*



- Zer da Lezetxiki?
 - Ezaguna egiten zaizue?
 - Non dago kokatua?
 - Jendea biziko zen aspaldi kobazulo horretan?
 - Zer dakizue horretaz?
 - (...)

Interes handia sortuko balitz etxean galdetzeraz ere bultzatu ditzakegu eta hurrengoan guztion informazioa elkarren artean elkartrukatu, guztion ezagutzak aberastuz.

3.- JARDUERA: Bizimodua leizeetan:

Bertan agertzen diren testuak irakurriko ditugu, horrek informazio osagarria emango baitigu bizilekuari dagokionean eta baita orduko biztanleen elikadurari buruz.

4.- JARDUERA: Ordena itzazu honako esaldi hauek, orduko bizimodua eta ezaugarriak ulertzen lagunduko baitizute.

Kolore eta lerro motaren arabera hitzak bere tokian kokatuz gero, esaldi bat aterako zaigu. Nolabait aurrean daukagun marrazkiari erantzungo diona.

- KLIMA: OSO HOTZA ETA LEHORRA ZEN.
- BIZITOKIA: LEIZEETAN TALDEKA BIZI ZIREN
- AURKIKUNTZA GARRANTZITSUA: SUARI ESKER ARGIA ETA BEROA LORTU ZITUZTEN.

Ariketa hau orduko bizimodua gaurkoaz alderatzeko erabili dezakegu. Hau da, arbelean adibidez, konparaketa moduko bat egin dezakegu aldaketez ohartu eta jabetzeko.

	ORDUAN	ORAIN
Bizilekua	Kobazuloetan	Etxebizitza edo baserrietan
Zenbat	Taldeetan (15-20)	Familiatan (2-6)
Zertara dedikatzen ziren?	Ehiztari eta fruitu biltzaileak	Lanbideak (okina, suhiltzailea, administraria, irakaslea, medikua...)
Elikadura	Animali eta landareak	

7. ORDUKO ARRASATE (12. -13. orriak).IBILBIDE DIDAKTIKOA

Euskal Herrian, garai hartan, kobazuloak erabiltzen ziren babesteko. Kobazulo haueetatik gertu beharrezkoak ziren gauzak zituzten: janaria (ehizatze eta fruituak biltzeko eremu emankorrak), ura (errekatik gertu)... Aztarnategi gehienak ibaien inguruan daude, urak



garrantzi handia baitzuen.

Arrasate mendiz inguratuta zegoen eta dago. Milioika urtean, Deba eta Aramaio ibaiak elkartzen ziren ingurua kareharrizko ingurunea zen eta kobazuloz betea zegoen. Klima gogorak astintzen zuen orduan eta babesleku aparta zegoen koba horietan, bai animalientzat eta baita gizakientzat beranduago. Garai hura oso hotza zen: itsasoa gaur baino 100-120 metro beherago baitzegoen.

Orduko Arrasatek ez du gaur egunekoaz zerikusi handirik. Irudi edo plano marraztu honetan gaur egun inguratzen gaituzten herriak daude kokatuak **nolabait orduko herriaren aurreikuspen bat egiten errazteko**. Plano marraztu honetan azaltzen diren elementu nagusiak hauek dira: herriaren eremu eta muga egiten duten herriak, Arrasateko kobazulo garrantzitsuenak, inguruko mendi eta errekek...

Aztarnategiak garrantzi berezia hartzen dute aurkitutakoaren arabera bereziki

1) Ibilbidea Garagartza auzoan hasiko dugu, plazatik Kobate harrobirantz abiatuko gara eta bi bide aukeran izango ditugu, lehengo zaharra eta gaur egun, gehiago erabiltzen dena(gomendagarria).

1.a) Bide zaharra. Harrobia pasatutakoan eskumaldean, Kobaundi haitzuloa ikusiko dugu eta harantz irteten den bidezidorra hartuko dugu, kobazuloaren eskumatik jarraitzeko. Bidezidor inguruan hainbat aldaketa eman dira azkeneko urteotan: harrobia, udalaren ur gordailua...

1-b) Bide "berria". Kobaundi aurretik doan bidea jarraitu Parraia baserrirantz (Gesalibar). Lehendabiziko bidegurutzean eskumako bidea hartuko dugu, aurrera segi eta hurrengo bidegurutzean (abiadura handiko trenaren zubi azpitik) eskumako bidea hartu. Hasiera (dena pista da) malda gogor bat baina ez oso luzea dugu. Aldapa bukatu eta gero, Kobate baserria izandako inguruan kokatu eta gero, beherantz jarraituko dugu eta metro gutxi batzuetara, 100 metro gutxigorabehera, eskumatara hartuko dugu bidezidor bat; bertatik berehala Lezetxen izango gara eta aurreraxeago Lezetxikin Inguru horretan ondoko leize aztarnegiak topatuko ditugu:



LEZETXIKIKO HARPEA:

Kokapena: Kobaunditik kobate leporaino, Lezetxikitik harpea 50 metrotara dago.

Indusketa: 1975an, Arrasateko espeologi taldea.

Ondarea: marruxkak, ahuntz aztarnak

LEZETXE:

Kokapena: Kobaunditik kobate leporaino, Lezetxikitik 10 metrotara.

Indusketa: 1934an JM. Barandiaranek aurkitu zuen eta 1958an, industu.

Ondarea: zeramika aztarnak, hartz aztarnak...

KOBATXO / LAMIÑEN ESKATZA:

Kokapena: Kobateko harrobitik Bostate lepora.

Indusketa: 1934an JM. Barandiaranek aurkitua eta 1958an, industua.

Ondarea: marruxkak, eztenak, lau giza-hortzagin...

OTERRETA II:

Kokapena: Garagartzatik Kobaundira. Bostiturrietari errekatxoa jarraituz, 120 metrotara.

Indusketa: 1974an, Arrasateko espeologi taldea.

Ondarea: zizelak, landutako harri eta tresnak...

LEZETXIKI:

Kokapena: Kobate lepotik Bostate gaineraino.

Indusketa: 1927an aurkitu eta 1956. tik-1968ra JM.Barandiaren taldea aritu zen ondoren

gaur egun arte, Aranzadi ikertzaile taldeak jarraitzen du bertan lanean.

Ondarea: zeramika aztarnak, tresnak, animalia aztarnak: hartzak, oreinak, panterak, bisonteak, giza aztarnak: besondoa, bi hortzagin...

LEIBAR:

Kokapena: Lezetxikiren koba-adar bati deritzo, Lezetxiki Ilrekin elkartzen da.

Indusketa: 1965. urtean, Barandiaranen ikerketa-taldea.

Ondarea: giza aztarnarik zaharrena - besondo oso bat Lezetxikirekin elkartzen den tokian agertu zen.

ATXABAL:



Kokapena: Atxabal mendian, Kobatetik hurbil.

Indusketa: 1974an, Arrasateko Espeologi Taldeak.

Ondarea: zeramika, hartzaren aztarnak, harrizko tresneria...

Lezetxiki Arrasateko Garagartza auzoan dago, mendi paraje eder batean kokatua, Udalaitz mendiaren magalean eta mendebaldera Aizkorriko mendizerra dituelarik. Kobazulorako sarrera, tunel tankerakoa da, eta hegoaldera begira dagoen irteeraren sabaia erortzen joan da urteen poderioz. Inguruko mendietan sortu den tunel naturala da, mendiak ez baitira egitura finko eta mugiezinak. Aitzitik, denboraren poderioz, harri masa erraldoi horiek mugitu, tolestu eta apurtu egiten da. Horixe da Lezetxikin gertatutakoa, tunelaren egituran ondo igartzen delarik. Mendien jarduera horren ondorioz, hegoaldera begira dagoen irteeraren sabaia erortzen joan da; beraz, pixkanaka tunela laburrago bilakatu da. Horrekin batera, bertan bizi ziren gizaki eta animaliak gero eta iparralderago utzi zituztelarik aztarnak.

Kobaren barrunbeak zeharkatuz orduko bizimoduaren erroetara jo dezakegu. Tunelean murgilduz, hartzaren hezurak eta gizakien presentzia egiaztatzen duten aztarnek benetako aurkikuntzaren emaitza osatzen dute.

Hala ere, kobazuloa ez du tunel bakar batek osatzen. Barandiaranen taldearen ikerketagaraian Leibar izeneko ikertzaile batek kobaren beste adar bat aurkitu zuen. Ordutik, Leibar deritzo koba-adar horri. Hantxe aurkitu zuen, 1965. urtean Joxe Miel Barandiaranek eta bere taldeak, oraingoz ezagutzen den Euskal Herriko giza fosilik zaharrena: besondo oso bat. Lezetxiki eta Leibar elkartzen diren tokian aurkitu zen besondo ospetsu hura. Emakume besondoa da, 30-35 urte bitarteko emakume batena. Emakume horren ezaugarriak honakoak zirela ondorioztatu zuten: garaiera txikikoa, 1, 40 eta 1,50 metro ingurukoa, zango motz eta okertuak dituen, beso luze eta orain dela 80.00 urte baino lehenago bizitakoa. Ez da ahaztu behar Euskal Herriko eta Kantauri Itsasoko kostalde osoko giza aztarnarik zaharrena Lezetxikin aurkitu zela.

“Leizeetako hartza” izenez ezagutzen den hartzaren hezurdura osoa atzeman zuten kobaren sei metroko sakoneran. Hasieran bizkarrezurra, beheerago arakatuta saihestak, beheerago aldaka... hartz mota honetako ornoak, femurra, peronea, falangea, tamaina ederreko letagina eta beste hainbat aurkitu dituzte dagoeneko.



Hartzez gain, animalia ugariaren aztarnak topatu dituzte: ohikoak ez diren katamotzak, elur oreinak, gaur egun Alpeetan ikus daitezkeen marmotak, errinozero iletsuak...

Halaber, arestian, KA 150.000 urte dituen hiru hartzen aztarnak Aranzadi elkarteak katalogatu ditu Lezetxikin eta horietaz gain, kobazuloan animalia basatiak ez zeudenean gizakiaren noizbehinkako presentzia agertu diren tresnengatik Lezetxikin, fauna aztarna asko, harrizko tresneria ugari, lan eta ehizatze tresna ugari aurkitu dituzte eta tarteka hainbat objektu "sinboliko" ere; besteak beste, maskorrekin egindako apaingarriak.

2) Behin bidezidorretik Kobate harrobira jaitsitakoan, Garagartza auzora bueltatuko gara, handik elizaren eskumaldetik abiatzeko Gesalibarrera doan bidetik. Gesalibar auzoaren Aita Menni ospitaletik aldetik Aretxabaletako Naparrena baserrira doan errepide-bidea hartuko dugu bertaraino iristeko. Handik eskumatara Murugaineko gailurrerantz abiatuko gara, mendi honetako hiriskarekin topo egiteko

HIRISKA:

MURUGAIN: urteak pasa ahala, poliki poliki aldaketa nabariak gertatu eta bertan herrixka bat eraikitzen hasi ziren. Badirudi, ur mugetatik hegoalderantz (Araba eta Nafarroan hain zuzen) sakabanatu zirela batez ere, gure herrialdeetan (Gipuzkoa eta Bizkaia) oso urriak baitira horien aztarnak. Duela urte batzuk arte, Tolosako Aldaba auzoan dagoen Intxur herrixka zen burdin aroko aztarna bakarra. Baina indusketei esker, Murugaineko herrixka beste hainbatekin batera gehitu behar zaizkio Tolosakoari.

Murugainekoa induskatu gabe badago ere, kata batzuk egin ondoren baliiodun aurkikuntza batzuk egon ziren: zeramikazko aztarna eta brontzezko apaingarriak.

Inguratzen duen harresia, herrixka hauen ezaugarriarik interesgarriena da. Eta gure kasuan, zati batzuk izan ezik, osorik aurkitzen da.

Historiaurrean Europatik zetozen populazioak Euskal Herriko inguruetako mendietan aurkitzen zituzten babesteko aproposak ziren kobazuloak, ordutik gure lur eremuetan beti egon da giza presentzia.

Lurrean gizakia agertu zenetik idazkera asmatu arteko garaiari deitzen zaio historiaurrea. Historiaurrean, testigantza idatzirik ez dagoenez, historia aztertzeke beste testigantza



batzuk aztertu behar izaten dira: fosilak, tresnak, eta lanabesak, arte-adierazpenak, eta abar. Horien bitartez, orduko bizimodua ulertzen eta deskribatzen laguntzen baitigute.

3) Mururen gailurretik jaitsiko gara Napparrena baserriraino eta handik Mandoiainetik jarraituz Arrasateraino joango gara. Handik San Josepe auzorantza doan biderantz joango gara eta auzora iritsi baino lehen ezkerretara joko dugu, bertan ikusteko izandako koba baten aztarna batzuk, kobazuloa saihasbideko bolumenean zegoelako.

LABEKO KOKA: (SAN ANDRES AUZOA)

Kokapena: Desagerturik, sahasbidea pasatzen baita.

Indusketa: 1972ean, Arrasateko espeologi taldeak eta 1987 eta 1988 urte bitartean, Aranzadi Zientzia Elkarteak.

Ondarea: tresneria: marruxkak, zizelak..., animalia aztarnak: hartz, orein, hiena, errinozeronte iletsuaren matrailezurra...

ETXALUZE: (SAN ADRES AUZOA)

Kokapena: "Eskatu" lantokiaren atzealdean.

Indusketa: 1969an, Arrasateko Espeologi Taldeak.

Ondarea: sukarrizko bi printza.

Lezetxikitik lau kilometrotara aurkitzen da. Gaur egun, aztarnategi hori jadanik ez da existitzen, errepide bat eraiki eta koba suntsitu baitzen. 1987an, Arrasateko sahasbidea Labeko Koba zegoen tokitik pasatu behar zuela eta, indusketa egin zen proiektua hasi aurretik. Bertako adituek diotenez (Alvaro Arrizabalagak), "kobazuloa suntsitu zen, baina aztarnategia ez".

1971ean Arrasateko hiru gaztek hiena baten kaskezurra aurkitu zuten. Ondoren, errepidearen proiektua zela eta, epe bat eman zitzaizen arkeologoei bertan indusketak egiteko. Indusketa 1987ko irailean hasi eta 1988ko abenduan bukatu ziren indusketok.

Milaka urtetan zehar, kobazuloak harrizko estalkia galdu zuen eta horregatik, fosilak hondatu egin ziren pixka bat. Arkeologoen lanari esker badakigu giza jarduera egon zela Labeko Koban baita animalia aztarnak ere. Arkeologoen idatzi dutenaren arabera, hienen eta gizakien kobazulo gisa definitu dute.



8. LEHEN BIZTANLEAK – JANZKERA (14.orria)

Aurrez ikusitako marrazki guztietan orduko janzkeraz ohartzeko aukera izan dugu. Baina oraingoan, ze jantzi mota eta zerez eginikoak edo zerekin lortzen zituzten lantzeko aukera izango dugu.

1.- JARDUERA: *Bertan agertzen den marrazkia behatu eta testu zatiak irakurriko ditugu, horrek informazio osagarria emango baitigu.*

Talde handian irakur dezakegu ozen edota bakarka.

Jantziak: larruen prestaketaren bitartez egiten zituzten, bai jantzi zein oinetakoak. Lehenik animalia larrua garbitu, gero tratatu eta ondu egiten zituzten eta azkenik norberaren gorputzera egokitu (moztu, zatiak gehitu...)

Osagarriak: bai animalia zein landareztatik lortzen zituzten. Hauek ere garbitu eta lehortu egiten zituzten ondoren beraien erabilerara moldatzeko.

Tresneria: eguneroko bizitzan erabiltzen zituzten hainbat motatako tresnak egiteko zenbait harri, egur eta adar erabiltzen zituzten.

- Ze animaliarekin egingo zituzten jantziak?
- Zerekin moztuko lituzkete hainbat gauza?
- (...)

2.- JARDUERA: *Zertarako erabiltzen zuten edo zerekin lotuko zenuke?*

Esaldiak irakurriko ditugu eta loturak egingo ditugu. Ariketa honek, aurrez ikasitakoa berresteko balioko du.

3.- JARDUERA: *Zure ustez zertarako janzten ziren?*

Esaldiak irakurriko ditugu eta zuzenak markatuko ditugu. Ariketa honek ere, aurrez ikasitakoa berresteko balioko du.

9. LEHEN BIZTANLEAK – SUA (15.orria)

1.- JARDUERA: *Irudia behatu eta bertako testua irakurriko dugu.*

Suaren aurkikuntzak iraultza handia ekarri zuen garai hartako biztanleentzat, bizitzeko modu erosoagoa eskaini baitzuen, besteak beste. Lehen gizakien garaian suak erabateko garrantzia izan zuen. Sua eskuratu zutenean, izugarrizko aurrerapena eragin baitzien; bereziki bizi kalitateari dagokionean, berotasuna, argitasuna, animalietaz babestu eta uxatzeko, janaria prestatzeko eta hainbat gaixotasun saihestu edo gaixotzeko arriskua murrizteko..



Elikagaiei dagokionez gehiago sakontzeko aukera ere badago, sukaldatzeaz gain nola kontserbatzen zituztenaren inguruan hitz egin dezakegu. Hainbat modu erabiltzen baitzituzten elikagaiak luzarago kontserbatzeko: izoztu, lehortu, gazitu eta ketu egiten zituzten.

2.- JARDUERA: *Ba al dakizu nola egiten zuten sua?*

Etxean galdetzeko aukera emango zaie edota ordenagailuz edo liburuetan informazioa bilatzeko aukera. Ondoren, norberak ekarritakoa gelakideekin konpartituko da eta azkenik guztion artean bateratze lana egingo da. Azkenik norberak bere erara idatziko du suaren prozesua.

10. LEHEN BIZTANLEAK (16.orria)

1.- JARDUERA: *Harriak zertarako erabiltzen zituzten? Zuzenak margotu.*

Tresneriaren inguruan sakontzeko baliagarria izango zaigu. Baita tresneriaren erabilerari buruz ere.

2.- JARDUERA: *Osa ezazu honako gurutzegramak.*

Aizkora: *Sukarrizko harri puska zapala izan daiteke, edo harrizko aizkora leundu bat egur zati bati lotua. Mozteko lanabesa edo ehiza edo borrokarako erabilia zena.*

Fosila: *antzinako izaki bizidunen gorputzen edo ekintzen aztarnak dira.*

Larrua: *animaliaren azalari ontze prozesua aplikatu ondoren lortutako gaia da. Hariz osatua ez badago ere, zuntz naturalek osatzen dutenez zuntza kontsideratzen da. Jantzi eta oinetakoak egiteko erabilia zen gehienbat.*

Suharria: *formarik gabeko arroka sedimentario bat da. Behar den adina indarrez joz gero, oso bereizgarria den azalera bat eratuz apurtzen da, ez erregularra, ondulatua, erpin zorrotz askorekin, hots, mineral gogorra. Praktika eta trebetasunarekin, labanak bezain zorrotzak diren lamina luzangak lor daitezke. Erreminta sastakatzaille-moztaileen eskulangintzarako, eskuzko aizkora eta gezi eta lantza puntentzako oso egokia. Bere izenak dioen bezala, beste arroka edo metal batzuekin kolpatuz gero, txinpartak sortzen dituena, sua egiteko erabilia. Silex izenaz ere oso ezaguna da.*

Horma-irudia: *orduko lehen arte adierazpena. Bi joera bereiz daitezke: labar artea (haitzuloetako hormetan egindako artea. Pintura grabatua izanik teknika erabiliena) eta arte higigarria (objektuetan egindako artea: hezurak, adarrak, etab.). arte adierazpen hauek informazio baliotsua ematen dute Historiaurreko giza talde, fauna, bizimodu, antolamendu eta abarrei buruz.*

Kobazuloa: *orduko biztanleen bizitokia. Zulo naturala.*

Gezia: *abilezia handiz landutako tresna edo jaurtigaia. Harrizko punta zorrotzez eginikoa eta egun luze bati ondoren lotutako tresna. Bereziki ehizarako erabilia. Historiaurreko gezi motak oso ugariak dira: batzuk, almendra forma dute, beste batzuk, erramu edo olibondo hostoarena,*



beste batzuk berriz, hiruki edo erronbo formakoak dira. Oinarrian, zirkuluerdi bat izaten dute, edo baita bi mutur ere. Suharriz eginak gehienak.

11. LEHEN BIZTANLEAK (17.orria)

1.- JARDUERA: *Testua irakurri eta ondoko argazkiari erreparatuko diogu.*

Aztarnen garrantziaz hitz egingo dugu eta baita hauek non agertzen diren eta nola aurkitzen diren. Nolabait indusketen gaira hurbilduko gara. Orduko biztanleak utzitako tresnetan (hezur...) oinarritzen da.

Indusketa metodologiaren bitartez lortzen dira objektuak, aurkitu diren testuingurua ere kontuan hartuta (geruzak, estratuak, etab.) eta, ondoren, sailkatu eta ikertu egiten dira, jakintza historikoa lortzeraino. Indusketak, lurzorua neurketak eta zientzia-analisiak dira euren bitartekoak idazkirik gabeko herrien natura eta giza jokabidea ikertu ahal izateko.

2.- JARDUERA: *Margotu zure ustez dagokion karratua.*

Esaldiak irakurri eta ea zuzenak edo okerrak diren adierazi beharko du ikasle bakoitzak gurutze bat eginez karratu egokian. Ariketa hau guztion artean egiterik ere badago, modu honetan entzumena eta ulermena lantzeko ariketa gisa erabili dezakegu. Hau da, esaldi bakoitza ikasle batek irakurri eta ondoren zergatik den zuzena edo okerra arrazoitzen saiatuz.

3.- JARDUERA: *Inguratu garai hartako animaliak.*

Bereziki klima hotzaren aipamena egin beharra izango dugu. Antzinako garai izoztu haietan ez zen jendea bakarrik bizi. Animaliak ere bertan bizi ziren. Arrasateko kobazuloetan aurkitutako aztarnei esker jakin dezakegu, gutxi gora behera, inguru horietan zein animalia bizi ziren: oreinak, zaldiak, bisonteak, uroak, hienak, hartzak, errinozerontzeak...

12. ORDUKO OBJEKTUAK (18.orria)

1.- JARDUERA: *Jarraitu ordenari lepokoa bukatu arte.*

Orduko objektu ezagunak daude ilaratan kokatuak eta horien arabera sekuentzia egin beharko du ikasle bakoitzak.

2.- JARDUERA: *Eskulana*

Orduko objektuen pareko materialekin lehen gizakiek egiten zituzten apaingarriak egiteko aukera aparta dugu. Lehenik eta behin beharrezko materiala identifikatu eta lortuko dugu eta ondoren jarraitu beharreko pausoak landuko ditugu, honela apaingarri pertsonal bat egitea lortuz. Ariketa honetan proposatzen diren materialak ordezkatu egin daitezke, hau



da makarroioren ordez harriak erabili, eta abar. Horrela orduko garaiko egoera hobeto ulertzeko ere balioko digularik.

13. INDUSKETAK (19. orria)

1.- JARDUERA: *Zer da arkeologia?*

Testuaren irakurketa egin eta indusketen lanaren baitan sakonduko dugu. Arkeologia zientzia izanik, ondo ulertu beharko dugu hurrengo ariketak errazago edo egokiago burutu ahal izateko. Komeni da hainbat hipotesi ere egitea gai honi dagokionean eta talde handian hitz egitea.

2.- JARDUERA: *Zein uste duzu dela arkeologoaren lana?*

Aurreko testua oinarri hartuta, norberak bere logikaren arabera erantzutea komeni da eta ondoren bateratze lana egitea.

3.- JARDUERA: *Zer da aztarnategia? Aukeratu zure ustez zuzena dena.*

Zuzenak direnak soilik markatuko ditugu.

4.- JARDUERA: *Bilatu 7 ezberdintasunak.*

Bi marrazkiak ondo behatu eta ezberdintasunak antzeman, guztira 7 bilatu arte. Marrazki hauek nolabait indusketen inguruko informazioa borobiltzeko balioko du, lehenik informazioa landuz eta azkenik informazio hori irudikatzen baita.

14. ARRASATEKO KOBIA GARRANTZITSUENAK (20. orria)

Aurrez "orduko Arrasate" mapa marraztuaz, gure herrian zeuden kobazulo eta orduko paisai eta bizimoduaren berri izan dugu. Oraingoan, gure kobazuloetan industutakoarekin lortutako informazioa garatuko dugu. Nolabait kobazulo baten indusketa lanaren argazki bat ikusteko aukera izan dugu aurrez, oraingoan kanpotik nola bideratzen den ikusteko aukera izanik (geruzen garrantzia, nola aztertzen den, informazioa...).

Lehenik eta behin, testua irakurriko dugu eta ondoren, argazkien bitartez oso modu grafiko eta garbian ulertzeko aukera izango dugu, Lezetxikiko indusketen garatzea.

1.- JARDUERA: *kobazuloetan zer gauza aurki ditzakegu?*

Ikasle bakoitzak kobazuloetan ze elementu aurkitu al izango diren idatzi beharko du. Beti ere, kontuan izanik orduko bizimodua.



2.- JARDUERA: *Berridatzi Arrasateko leizeak direnak.*

Aurrez, Arrasateko kobazuloei buruz hitz egiteko aukera izan genuen eta agian bergogoratzea (kokapena, aurkitutako ondarea...) ondo legoke. Bestela, informazio iturri ezberdinetatik (internet, etxean galdetuta, liburutegian kontsultatuta...) Arrasateko kobazuloen izen zuzenak antzemateko aukera izan dezakete eta ondoren hauek berridatzi.

15. ARRASATEKO Koba GARRANTZITSUENAK (21. orria)

1.- JARDUERA: *Entzun adi jarraian dituzun testuen informazioa. Arrasateko bi kobazulo garrantzitsuren inguruan gehiago jakiteko balioko baitizue. Esan zure irakasle edo gurasoei irakurtzeko eta ondoren gelakideekin honetaz hitz egin.*

2.- JARDUERA: *Arrasaten topatutako aurkikuntza garrantzitsu batzuk.*

16. LAMIAREN KONDAIRA (22. orria). Unitate didaktikoan agertzen den testuarekin batera irakurtzeko

***Lamiñe ta "Korrion" kriane.**

Egun baten, "Korrion" Kriane ardixetara oiela, "Koba-aundi" onduen lamiñen batek urten eutzen. Lamiñie oso neska edarra zan. Lamiñiek esan eutzen mutillei ia beraz ezkonketie gure auen. Mutillek baietz esan eutzen. Etxera juan zanién esan eutzen nesabiei zelako neskie topan auen "Koba-aundi" aurrien eta zela zeraz ezkondu bier auen. Orduen nesabiek esan eutzen: Ikusi'tzek ankak? -Ez. Lamiñen bat ez ete dok izengo? Urrengo oienien ankak ikuixok. Andik egun batzuetara mutillek "Koba-aundi" gurrien gorde eizan. Alako baten, agertu zan lamiñie ta... ankak paitiek lekuek euken! Mutille artu auen sustuaz, geixotu ein zan eta andik egun batzuetara ill. Lamiñak enterraixoko jentiei atzetik-atzetik jarraitu eutzien baño eleixan etzien sartu.

(Jose Oruek kontauta 1949an) Justo Jauregui-Arraburuk eginiko "Apuntes para una monografía de la Anteiglesia de Garagarza" liburutik aterata.

Arretaz irakurri pergamino barruan dagoen testua eta gelakideen artean hitz egin.

- Ezaguna zaizue?
- Nork edo non kontatu dizute?
- Ezagutzen al duzu antzeko kondairarik?
- Lotuko al zenuke ipuinen batekin?
- (...)



1.- JARDUERA: *Ba al dakizu zer auzotan dagoen?*

Auzoaren ezagutzaren inguruan hitz egin eta deskribatzeko aukera emango digu. Zer dagoen inguruan, noiz joan izan gara, bertako jai eta ezaugarriak, eta abar.

2.- JARDUERA: *erantzun honako galdera hauei:*

Marrazkiek erantzunaren inguruko pista edo erraztasunak emango dizkigu. Galdera hauek testua edo kondaira hobeto ezagutu eta ulertzen lagunduko digu.

Azkenik norberak besteren bati kondaira kontatzea ondo legoke (ondoko gelakideei, bere familiako kideren bati: anai-arreba...)

17. LEIZEETAKO ARTEA (23.orria)

Marrazkiak orduko arte adierazpenaren berri ematen digu eta baita informazioa ere inguruan azaltzen diren testuen bidez.

Hurrengo jarduera edo ariketara pasa aurretik ondo legoke zer motatako marrazkiak egiten zituzten... beraiekin partekatzea. Arrasateko kobazuloetako hormetan ez da pinturarik aurkitu baina posible balitz Euskal Herriko hainbat kobazulotan agertutako horma-irudiak ikustea: argazkiak, interneten... aberasgarria litzateke ikasleentzat.

1.- JARDUERA: *Eskulana: saiatu orduko horma-irudi bat egiten.*

Denbora izanez gero eta arte adierazpen honetan sakontzeko gogoia izanez gero, muralak ere egin ditzakegu eta ondoren ikastetxeko tokiren baten jarri.

18. NEOLITO GARAIA (24-25.orriak)

Neolitoa, harriaren azken garaiari deritzo. Lehen iraultzat jotzen da, gizakiak harrapari eta biltzaile izatetik ekoizle izatera igaro baitziren. Beraz, elikaduraren kontrola lortu zuen: abereak hezten zituzten, animalia taldeak zaintzen zituztenez haragia, esnea eta larrua lortzen zituzten (honengatik hasi ziren ardiak, behiak, ahuntzak eta zerriak hezten), fruituak landatzen... Neolitoaren ezaugarria lehenengo aldiz nekazaritza eta abeltzaintza agertzea izan zen. Euskal Herrian garia, artatxikia, oloa... agertu ziren eta zakur, zaldi eta ardiak etxekotu ziren. Bi bizimodu horien agerpenarekin jendarteak bi zatitan banatu zen: mendietan abeltzainak bizi ziren, batez ere lur komunaletan oinarritzen zena, eta, beste aldetik, nekazaritza, jabetza pribatuan eta sedentarietatean oinarritzen zena.^[1] Horrekin bi kultura bereizi ziren: alde batetik megalitismoetan oinarritutakoa, hasiera batean trikuharriekin eta gero harrespil eta zutarriekin. Bestetik lehenengo herriak sortu ziren, etxebizitza finkoekin.



Giroa epeldu zenean bizimodua aldatu egin zen. Giro aldaketaren ondorioz, beste animalia mota batzuk agertzen hasi ziren eta natura ere aldatu zen.

Jendeak inguruaren aldaketa horretara moldatu behar izan zuen. Epeltzearen ondorioz, ugaritutako basoak moztu eta lurra lantzen hasi ziren. Nekazaritza garatzen hasi zen.

Animaliak ehizatu beharrean, zaintzen hasi ziren, eta horrela artzaintza hasi zen. beraz, jendea, ehiztari eta fruitu biltzaile izatetik, nekazari eta artzain izatera pasa zen.

Pentsatzekoa da, kobazuloak utzi eta leku erosoagoen bila abiatu zirela. Txabolak eraiki zituzten, segur aski material galkorrez. Horrek, haien aztarnak aurkitzea eragotzi du, eta bititoki haien bizimoduari buruzko informazio gutxi izatea ekarri du.

Garai hartatik, batez ere, monumentu megalitikoek iraun dute, nahiko ugariak badira ere Euskal Herrian, Arrasate inguruan ez dago horrelakorik. Haietan aurkitutako objektuetatik ondorioztatu da garai hartako jendeak bereziki buztina eta ehuna lantzen zituela.

Monumentu horiek gurean ez izan arren, Udalaitzen aurkitutako aizkora leundua aipatu beharra dago., gure arbasoek bizimodu eta jarduera berrirako inguruaren egokitzapenerako erabiliko zuten tresna, seguruenik.

Era berean, bizimodu berria finkatzeko, basoak moztu zituzten eta larreak eta baratzak eskuratzeko. Beste hainbat jarduera ere egiten hasi ziren: ehungintza, zeramika, nekazaritza, artzaintza, ale xigorketa, arrantza eta abar.

Ezaugarriak

Izadi jainkoak

Nekazaritza sortzean konturatu ziren eguraldiak bazeukala zerikusia haiek landatzen zituzten fruitu, barazki eta abarrekin. Konturatu ziren eguzkirik gabe ez zegoela uztarik eta euririk egiten ez bazuen ere uztarik ezingo zutela jaso eta euri zaparrada bortitzak edo ekaitz zatarren ondorioz uzta ezingo zutela jaso. Eguraldi fenomeno horien jatorria ezezaguna zen garai hartan eta nolabait logika bilatu behar izan zioten horri, honela jainkoak sortuz. Nekazaritza sortzearekin batera hildakoak hilobiratzen hasi ziren eta hori ere jainkoek erabakitzen zutela zioten. Jainkoei eskaintzak ere egiten zizkieten haien biziak, uztak eta abar zaindu zituzten eta hori horien uztak, janariak... eskainiz lortzen zutela zioten. Horrekin batera jainkoekin komunikatzen ziren pertsonak azaldu ziren.



Jabego pribatua

Hasiera batean lurrak landatzen hasi zirenean lur guztiak denetak ziren eta ondorioz jasotako uzta ere denena zen. Baina urteak igaro ondoren konturatu ziren lur horiek landatzen zituztenak bakarrik familia batekoak zirela familia horrek erabaki zuen lurra beraiena izango zela, honela lan gehiago egiten zutenek lur gehiago edukiz bakoitzarentzat.

Mailaketa

Jabego pribatuak zeudenean mailaketa sortzen hasi zen. Garai horietan konturatu ziren familia batzuk lur ugari zituztela eta beste batzuk bat ere ez. Lur asko zeuzkan familia konturatu zen ezin zituela lur guztiak landatu eta honen ondorioz zituen berarentzat lan egiteko, ordainketa bezala uztaren zati txiki bat jasoko zuten.

Bizileku finkoak

Nekazaritza eta abeltzaintza sortu baina lehenago, gizakia ibiltaria zen ehizaren arabera migratzailea. Baina lehenago aipatu ditugun nekazaritza eta abeltzaintza sortzean zeuden lekuetan bizitzen gelditu ahal izatea baimentzen zuen. Honekin batera lehenago egiten zituzten txabola txiki horiek baztertu zituzten eta etxe handi eta sendoagoak eraikitzen hasi ziren. Etxe hauek nekazal lurrentzako egokiak ziren lekuetan kokatzen ziren eta leku horiek nekazaritzarako onak izanik etxe bat baina gehiago biltzen ziren inguruan eta honela sortu ziren herrixkak. Euri jasa bortitzak edo lehorteak zetozenean herri batzuk uztarik gabe gelditzen ziren eta ondorioz, jendea beste herrietara joaten ziren hango lurrak lapurtzera. Animalia plagak zetozenean ere uztak kendu egiten zieten eta honela sortu zen defentsa beharra.

Produkzioaren ugaritzea

Nekazaritza eta abeltzaintzarekin batera ugariagoak izan ziren produkzioak ez zutelako ehizan ibili beharrik ezta fruitu bila joan beharrik ere gauza horiek beraiak landu eta zaintzen baitzituzten, hau da produktu ugariagoak zituzten. Horregatik jende gehiago zegoen herrietan jendea ez zelako gosez hiltzen lehen bezain beste gosez hiltzen. Hala ere, ez zen bakarrik horregatik izan demografi igoera. Izan ere larruz estaltzen ziren, honela, hotz gutxiago pasatuz eta etxe hobeak egin zituzten hotz gutxiago sartzeko etxe haien barruan. Produkzio ugaritzearen ondorioz ere zeramika sortu zen.

Hainbeste ale edukirik nonbaiten gorde behar zituzten bestela usteldu egiten zirelako. Lan banaketa ere produkzio ugaritzearekin batera gertatu zen. Batzuek ez zekiten produktuak ondo zaintzen baina bazekiten oso ondo zeramikako ontziak egiten beraz bakoitzak ondo egiten zuenarekin irabazten zuen janaria, hau da, trukean ibiltzen ziren: batek zeramikazko



ontzi bat egiten zion beste bati bere baratzeko produktuen truke... Hau izan zen lan banaketa. Lehenago esan dugun bezala bakoitzak ondo egiten zuenera dedikatzen zen eta *lan* bakoitzari izen bat eman zitzaion: artisaua (eskuekin lan egiten zuena gauzak lortzeko), merkataria (itsasora edo ibaira joaten zena arrain bila)...

Ehungintza

Abeltzaintzarekin konturatu ziren animaliek ez zutela hainbeste hotzik pasatzen beraien larru lodiari esker. Hasieran larruak atera bezala janzten zituzten baina denborarekin konturatu ziren hainbat teknika erabiliz larruak bero gehiago ematen zuela eta honela artisau espezializatuak ere sortu ziren.

Tresna berriak: gurpila, lanabesak

Hainbat tresna berri sortu ziren, gurpila esaterako. Hasieran lera erabiltzen zuten baina ondoren ikusi zuten lerari gurpilak jartzen bazizkioten askoz ere errazago mugituko zituztela gauzak. Lanabesak ezinbestekoak bihurtu ziren ehizarako, arrantzarako eta beste hainbat gauzatarako ere bai

1.- JARDUERA: *Osa itzazu esaldiak dagozkien hitzekin.*

Behean azaltzen diren hitzak, esaldien tarte egokian kokatuz gero, neolito garaiko bizimodua ulertzeko aukera izango dugu. Bereziki, eman ziren aldaketa nagusienei dagokionean.

19. BALORAZIOA (26.orría)

Gaiari buruz ikasitakoa errepasatzeko bide edo aukera emango digu. Azkenik beraien iritzia eskatuko diegu gaiaren inguruan.



▪ **BIBLIOGRAFIA:**

▫ **LIBURUAK:**

- IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA: " *Arrasate gure herria*", Arrasateko Udala, 1993.
- ARRIZABALAGA, Alvaro; ALTUNA, Jesus: " Labeko Koba (Pais Vasco): Hienas y Humanos en los albores del Paleolitico Superior , Munibe (Aranzadi), 2000.
- AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA.
<http://www.euskomedia.org/aunamendi>

▫ **WEB ORRIAK:**

<http://www.hiru.com>

- Prehistoria Euskal Herrian
- Gizadiaren sorrera

<http://www.arrasate-mondragon.org>

- Historia
- Labeko Koba
- Lezetxiki
- (...)

<http://www.euskomedia.org/aunamendi>

<http://www.anakel.com/liburua/ikusi/gizarteziatiak/>

<http://www.aranzadi-zientziak.org>

- El humero premusteriense de Lezetxiki
- Labeko Koba (Euskal Herria). Hienak eta Gizakiak Goi Paleolitosaren hastapenetan.
- Estudio geológico del yacimiento prehistórico de Labeko Koba y su entorno (Arrasate, País Vasco)
- Macromamíferos del yacimiento de Labeko Koba (Arrasate, País Vasco)
- Labeko Koba y Lezetxiki (Pais Vasco). Dos yacimientos, una problematica comun.

<http://www.harpea.org/temas/neandertales>



<http://www.wikipedia.org>

<http://www.zientzia.net>

- Lezetxiki eta arbasoen arbasoak
- Historiaurreko irakurgaiak, Alvaro Arrizabalagak gomendatuak (2009/06/01)
- Alvaro Arrizabalaga: "gure arazoa datu eskasia da" (2001/11/01)
- Arrasate inguruko altxor arkeologikoa (2002/06/16)

<http://www.mondraberri.com/mondraberri>

- Altxor berri bat azalatu da koba ospetsuan
- Duela 150.000 urteko hartz baten hezurra aurkitu dute Lezetxikin

<http://www.goiena.net>

- Duela 45.000 urteko Cro-Magnongo gizakiak zeuden Labeko koban

<http://gara.net>

- Lezetxiki: iraganerako tunelaren begiradapean hartzaren eta gizakiaren aztarnel jarraituz (2008/07/17)

▫ FILM GOMENDATUAK:

Suaren bila (Jean-Jacques Annaud, 1981), ETBk ere emititua du filma.

***Hik Hasi aldizkaria. "Herria ezagutzen" "Nor ginen" izeneko unitate didaktikoa eta gida pedagogikoa.**

▫ LOTUTAKO BERRIAK

- [ARRASATE-MONDRAGÓN EXCAVACIONES El oso cavernario de Lezetxiki](#)

La composición del esqueleto de un oso de unos de 150.000 años de antigüedad, es el hallazgo más importante de 2008 en el yacimiento de Lezetxiki, en Arrasate.

<http://www.diariovasco.com/20080717/gipuzkoa/cavernario-lezetxiki-20080717.html>

- 2008-07-17

- [Las «herramientas» más antiguas halladas en Euskadi se encuentran en Lezetxiki](#)



La cueva de Arrasate acaba de abrir una nueva puerta hacia el paleolítico inferior con el hallazgo de útiles pertenecientes a hace 150.000 años. Lezetxiki II, a pocos metros de la cueva, es otro de los tesoros de la zona.

http://www.diariovasco.com/prensa/20070720/cultura/herramientas-antiguas-halladas-euskadi_20070720.html - 2007-07-20

- Lezetxikikoa da ezagutzen den Euskal Herriko giza ezarleku zaharrena

150.000 urte inguru duten animalia hezurak eta giza tresnak aurkitu dira azken urteetako indusketetan

http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=kultura&data=2007-07-20&orria=034&kont=010 - 2007-07-20

- CUEVAS DE LEZETXIKI Hallan en Arrasate las herramientas más antiguas de Euskal Herria

Los restos arqueológicos encontrados datan de hace 150.000 años.

http://www.eitb24.com/noticia/es/B24_58380/sociedad/CUEVAS-LEZETXIKI-Hallan-Arrasate-herramientas-mas-antiguas/ - 2007-07-19

